

Nafarkaria

• ostirala • 2002ko maiatzaren 24a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Urzainki • Erronkariko seigarren Euskararen Eguna ospatuko dute, bihar, ura ardatz hartuta • **3**

Pedro Otadui • «Arrazoiak ematen digu indarra San Frantzisko eskolako gurasoei» • **7**

Ezetz asmatu zein den Iruñeko karriketan gehien irakurtzen den hitza. Ez, ez da 'Nafarroako Kutxa'. Ezta 'Coca-Cola' ere. Begira zoruari, estoldetako estalkiei... Horixe bada, 'Sancena'.

Nafarroako karriketan diren burdinazko altzari gehienak —estalkiak, eserlekuak, iturriak, kale-argiak— Sancena galdaketa etxeak egin ditu. Betiko enpresa bat da, behin eta berriz erabiltzen den gai batekin betiko gauzak egiten dituen. Eta hor segituko du, beti, nahiz eta gu konturatu ez.



Lekunberri • Azienda lehiaketa eta enkantea

Lehendabiziko aldiz, Nafarroan, Pirinioetako behiak eta latx arrazako azienda ikusi, eta erosi ahal izanen dira, bihar eta etzi, Udalak, Aslana eta Aspina elkarteek antolatutako ganadu lehiaketa eta enkantean.

550 abelburu aurkeztuko dituzte asteburu honetan, Udalak antolatutako txapelketan



Latx arrazako aukerako azienda lehiaketa eta enkantea egingen dute aurten, lehenbizikoz, Lekunberrin. Irudian, artalde, Belaguan. • CRISTINA BERTAIN

L EKUNBERRIKO KARRIKAK Euskal Herriko hegoalde-tik eta Aragoitik etorritako abeltzainez beteko dira, larunbat eta igande honetan. Txapelketa berezia izanen da aurtengo. Izan ere, Nafarroako lehengo latx arrazako aukerako azienda lehiaketa eta enkante nazionala izango baitira. Hamabosgarren edizioa izanen da, ordea, Pirinioetako behi arrazako txapelketarena.

Lekunberriko alkate Jose Maria Aierdiren esanetan, «gugandik gertu bizi direnei abeltzaintzan egiten ari diren ahaleginak erakutsi nahi dizkiegu. Azken urteotako aldaketekin, gure bizimodua hobetu egin nahi dute bai abeltzainek, eta baita arlo honetan diharduten elkarteek ere».

Egitaraua larunbat goizean hasiko da. Abelburuak herrian sartuko dira, eta epaimahaikideek hauek aztertu eta sailkatu egingen dituzte.

Aurten lehendabizikoz egingen den latx arrazako aukerako azienda lehiaketa eta enkante-ari dagokionez, 250 abelburu

aurkeztuko dituzte Nafarroa osotik parte hartuko duten 20 abeltzainek. Azienda bi kategoriatan aurkeztuko da, latx muturbeltza, bata, eta mutur gorria, bestea. Bertan, arkazteak eta urtebetetik beherako eta gorako ahariak aztertuko dituzte.

Bestalde, Pirinioetako behi arrazako lehiaketan XV. aldia du aurtengoan, Hego Euskal Herri-tik eta Aragoitik joanen diren 27 abeltzainek 300 abelburu aurkeztuko dituzte, bi kategoriatan: idiskoak eta urrixak.

Larunbat arratsaldean, azienda ustiapenen oraina eta etorki-

zuna, eta Europako Batasunetik datozen laguntzak aztertuko dira mahainguru batean.

Sariak

Igande goizean, Nafarroako aratxekia dastatzeko aukera izanen du Lekunberrira joaten den orok, eta baita eskualdeko artisau produktuak erosteko ere. Unerik bereziena eguerdi partean izanen da, enkantea bera eta sari banaketak egingo baitira. Atal bakoitzean, bost sari emanen dira: 150 eurokoa handiena, eta 30 eurokoa txiki-ena.

Sari bereziak ere izanen dira.

Besteak beste, behi umegilerik hoberenak eta urte gehien duen behiak 150 euro eta garaikur bana jasoko dituzte.

Bestalde, lehiaketan parte hartuko duten abeltzainek behi azienda atalean aurkeztutako buru bakoitzeko, 36 euroko diru laguntza jasoko dute Espainia-ko Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministeriotik. Ardi aziendakoek, berriz, buru bakoitzeko, 9 eurokoa.

Abelburu guztiak arratsaldeko hiruretan aterako dira herri-tik.

→ Estibalitz Ortega

Iruñea

•
Maien Besta
Sanduzelain

OHIKOA DENEZ, MAIATZAREN azkenaurreko ostiralean Maien Besta ospatzen dute Iruñeko Sanduzelai auzoan, Umetxea elkartearen eskutik. Jai horretan, «Argako ibaiertzean izaten den udaberria eta naturaren esnatzea» ospatzen dute. Bestako protagonistak Umetxea elkarte-ko neska dantzari tikiak dira, maiak alegia. Zuriz jantziko dira, sahats koroa buruan, lore petaloak jaurti eta maien jofa dantzatuko dute. Aurtengo maien erregina izatea Leire Tejero 7 urteko neskatoari egokitu zaio. Dantzari, erraldi, txistulari eta txalapartarien segizioa 18:00etan abiatuko da haur parkeraino. Hantxe erromerian ibiliko dira Argako ibaiertzean.

Gazteen antzerkia
euskaraz

GAUR ETA HELDU DEN OSTIRALEAN Gazteen Antzerkia Euskaraz izeneko lehen topaketa egingen dute Iruñean. Hiru ikastetxetako ikasleek antzezlan bana eskainiko dute. Gaur, 20:00etan, San Fermin ikastolako antzerki taldeak $x+x+2x=10$ gazte lana taularatuko du Erraldoien Txokoa-n. Ordu bete geroago, Lizarran ikastolako antzerki taldeak *Esnatzeak II* antzezlan eskainiko du. Azkenik, heldu den ostiralean, Iturruma Institutuko taldeak bere azkeneko lana aurkeztuko du: Paco Mir-ek idatzitako eta Reyes Ilintxetak apailatutako *Ez da hain erraza*.

Topaketen antolatzaileen iritziz, «antzerkirako zaletasuna txikitatik bultzatzea eta gaztetxoek lanak taularatzea da antzezpen hauen xedea».

ziutatea

ARITZ AGIRRE



Futbola eta biok

- 1.- Osasuna da UPNek dekretuz eskua sartu ez duen Nafarroako txoko bakarra, oraingoz.
- 2.- Gorritxo baimenarekin jokatu du Alavesek UEFA, Athleticen oparitutako berdinketari esker.
- 3.- Real Madril-ek Euskal Herrian galdu du aurtengo liga, Sadarren eta Anoetan.

Nerabeen karpeta argazkidunetan gailentzen den izenburuari esanahia aldatu eta hitz larriez azpimarratu-ko dut: **bizi garen errealitate eta testuinguruaz jabetu ahala, are gehiago maite dut nik futbola.**

Garzoni soilik drogen aurkako futbol partidetan sartzen dizkiotelako golak. Afganiarrek marineen kontra bakarrik futbole- an erdietsi dutelako garaipenik. Baloi- az baliatzen

direlako Almeriako etorkinak Guardia Zibilari adiskidant- tzazko partidetan ostikoak emateko; bueltako abioia hartu aitzin, betiere.

Sentsazioa da gaitzaileen taldean egokitu zaidala partida jokatzeko. Eta entrenatzaile-rik gabe gaudela, aspaldi. Horre- gatik, aldi berean, barreari ezin eutsi diezaioket euskal tal- deen eskupeko jokoez Madrilgo esatarien arrangura aditze- an, edota ERREge Madril-ek mendeurrenaren Errege kopa jasotzerik ez duenean. Norabiderik gabeko ibilbidean, amil- degian behera erori aitzin, beti geldituko zait futbolaren eus- karria. Eta datozen asteotan, Koreak edo Nigeriak mundiala irabaziko duten itxaropenari eutsiko diot, etxean ilegaliza- zioak eta politika liberalak gailentzen diren bitartean.

Izan ere, berdegunean biluzik korrika hastea edota portieretara lotzea izaten baita sarri norbere irudia edo aldarrikapena, zakila ala kartela telebistan kolatzeko era bakarra. Irteerarik gabeko zirkulu itxian baloiak berega- natzen baitu albistegien titularra.

Futbola herriaren opioa dela ere irakurri dut nerabe intelektuala karpeta argazkidun horietan. Gaur, ordea, bada opio gehiagorik egunkarien beste orrialdeetan ere. Bihar Espainian, Italian, Holandan, Frantzia eta nork jakin aurki Alemanian ere kantatuko ote duten Euro- pe's living a celebration doinua, esaterako. Esquindar giro biziberrituaren ospakizun beldurgarriak. Eta, hala ere, ez dakit beldurgarriagoa ez ote den Donostiako triumfomania kontzertua ikusteko Iruñerri, Hernani, Orre- ta edo Gernikatik atera zen autobus andana. Gringoa etxean.

Urzainki • Euskararen Egun urtua

Duela sei urte hasi zen Kebenko elkartearen Erronkariko Euskararen Eguna antolatzen. Urtetik urtera, ospakizunetako herria eta gaia aldatzen dute. Aurten, Urzainki herriari eta uraren gaiari egokitu zaie txanda.

UZTARROZEN EGIN ZUTEN LEHEN Euskararen Egun hartan ez zuten aparteko gairik aukeratu. Hurrengo urtean hasi ziren, Bidankozeko azken euskal hiztunak omenduz. Gero etorri ziren Izaba eta espartingileak, Burgi eta sorginkeria, Erronkari eta Nafarroako historia, eta aurtengo Urzainki eta ura. Heldu den urtean, Garden izanen da ospakizuna. «Beti saiatzen gara kulturarekin eta ibarrarekin loturiko gai bat aukeratzeko», erran du Erronkariko euskara teknikari Jone Usozek. Euskara Zerbitzuak eguna antolatzen laguntzen baldin badu ere, Kebenko elkartearen ekimena da batez ere.

Erran bezala, aurtengo jaia- ren ardatza ura izanen da; ur osagaia Erronkariko leku izen askotan agertzen baita. Dena dela, Urzainkiren kasuan ez dago batere garbi ur- aurrizki hori ura ote den. Nolanahi ere, ukaezina da urak berebiziko garrantzia izan duela ibarraren bilakaeran, batez ere, egurra garraiatzeko erabili zenean. Gai-



Erronkariko aurtengo Euskararen Eguna ura gaiaren inguruan osatu dute.
• CRISTINA BERIAIN

nera, ibarra osatzen duten zazpi herriak Ezka ibaiaren eta bere isurkideen bazterrean kokatu zituzten. Eta horrek behartu zituen ibaiaren paraleloan doan errepidea egitera, eta, jakina,

ibaia igarotzeko hainbat zubi eraikitzea.

Ur ekitaldi ugari

Bihar Urzainkin egingen dituzten ekitaldi gehientsuenek ura iza-

Euskararen Eguna Urzainkin

Igandea 26

- 10:00** Dianak.
- 11:00** Julian Gaiarre abesbatzaren kontzertua.
- 12:00** Haurrentzako ur-ekitaldiak.
- 12:15** Tomas eta David Urzainkiren hitzaldia.
- 13:00** Argazki zaharren erakusketaren liburuxkaren aurkezpena.
- 14:30** Herri bazkaria.
- 16:30** Haurrentzako pintura lehiaketa.
- 17:30** Zirkuko Eskola.
- 18:00** Ekitaldiak ibaian, Txitzarenako arrantzaleen eskutik.
- 20:30** Afrikako dantza eta musika, Sawana taldearen eskutik.
- 22:30** Aitona Demons taldearen kontzertua.
- 00:30** Gaupasa, Urgabe taldearekin.

nen dute ardatz. Honela bada, goizean, ibai bazterrean, haurrentzako ur ekitaldiak antolatu ditu Ekia enpresak. Tomas eta David Urzainki urzainkiarrek uraren gaineko hitzaldia eskainiko dute. Historiari errepaso zabala egingen diote, urak ibarrari eman diona azpimarratuz.

Hitzaldia bukatu eta gero, argazki zaharren erakusketaren irudi hautatuekin osatu duten liburuxka aurkeztuko dute, *Ura txuri-beltzean* izenburukoa. Ondoren, haurrek ura gaitzat duen pintura lehiaketan parte hartuko dute. Eta Txitzarena arrantzale elkarteak kideek hainbat ekitaldi egingen dituzte ibai bazterrean.

Eguna musikarekin bukatuko dute: Urzainkiko Aitona Demons taldea eta Urgabe. Azkenik, aipatzekoa da egun osoan Jarauta 69 txaranga herriko kaleetatik ibiliko dela, eta bi txosna paratuko dituztela, edari eta ogitartekoak zerbitzatzeko.

→ Asier Azpilikueta

Aranguren •

D ereduaren aldeko eguna

IRUÑEA ONDOKO ARANGUREN IBARREAN, Euskararen Eguna ospatuko dute igandean, Labianon. Ibarreko kultur elkarteak —AEK batez ere— eta Udala dira egunaren antolatzaile. Duela hiru bat urte hasi ziren ospakizunekin. Aurreko urteetan Euskararen Eguna Mutiloabeitin egin eta gero, aurten erabaki dute ospakizuna herrietara zabaltzea. Aurten Labianon egingen dute.

Uharteko, Esteribarko eta Arangurengo ibarrek euskara teknikari bera dute. Baina iaiztik, Arangurengo Euskara Zerbitzua beste bietatik bereizita dago formalki. Une honetan Kati Leatxe ari da Arangurengo

euskara teknikari lanean.

Euskararen Eguna badu halako aldarrikapen kutsu bat Aranguren. Leatxek erran duenez, Aranguren euskara zabaltzeko dagoen arazo nagusia da ibarra eremu erdaldunean dagoela. Horrek eragozten du Aranguren D eredua osatzea. «Ibarreko haur asko D ereduan daude matrikulaturik, sare publikoan zein pribatuan, baina betiere, Arangurendik kanpo», azaldu du Leatxek. «Duela bi urte, D ereduaren alde mobilizatu

Arangurengo Euskararen Eguna

- | | |
|--|--|
| 11:00 Arangurengo erraldoi eta kilikien konpartsa, gaitari, dantzari eta Donibane ko fanfarrearen kalejira. | egurra moztea, bi aizkolari lehiari eta arpana. |
| 11:30 Taloak eta txistorra. | 14:30 Bazkaria, karpan. Bazkalondoan, Jaione, Xuxuna eta Karlosen musika. |
| 12:00 Haurrentzako jolasak. | 17:00 Haurrentzako herri kirolak, Zurgai taldearekin. |
| 13:00 Herri kirolak, Zurgai taldearen eskutik: harri jasotzea, aitzurrarekin | 19:00 Dantzaldia, Alaitz eta Maiderrekin. |

ziren gurasoak, eta azken unea arte ez zituzten haurrak matrikulatu. Eta Udalak Aranguren eremu mistoan sartzeko eskatu zuen. Baina ez zuten lortu egoera aldatzea. Behintzat, Udalak autobuserako eta jantokirako diru laguntzak ematen ditu».

→ Asier Azpilikueta



Xabier Larraburu

Anitaren fantasiak

Anitak ongi egiten zuen lo. Oheratu orduko, eguneroko aferekin ez tematzeko, bere fantasien saldoaren artean bat aukeratu eta harekin ibiltzen zen lokartu arte. Fantasiak ez ziren asko, hamabi bat edo, baina, hori bai, noizbehinka berritzen zituen. Oso gastatuak ikusten zituenen, alde batera utzi eta, esaterako, mutil eder bat berriki ezagutua bazuen, harekin eraikitzen zuen fantasia berri bat, zeinak, gastatu arte, ongi lokartzeko modua hilaibeteetan eskaintzen ahal zion.

Halako egun batean, oheratzeko ordua ailegatu, eta Anita betiko protokoloa lagun zuela oheratu zen. Ohean zegoela, fantasien saldora jo zuen, gauero egiten zuen moduan, zein aukeratu erabakitze- ra, eta orduantxe konturatu zen zer edo zer gaizki zebilela. Anitari fantasia-saldora amets bat falta zela iruditu baitzitzaion. Anitak banan-banan zenbatu zituen orduan fantasiak (hamabi bat edo), eta, bai, fantasia bat falta zela ikusi zuen. «Kaguenlatxota» —pentsatu zuen Anita— «ez naiz, bada, orain fantasia bilatzen hasiko, dena ilun dago, gainera; zehazki zein fantasia den ere ez dakit, eta batek daki non sartu den!».

Beraz, Anitak, galdutakoa burutik kenduz, fantasia bat aukeratu eta berarekin ibili zen gora eta behera lokartu bitartean. Horrela, berriki ezagututako mutil eder harekin pote bi hartu zituen, eta mutilak poteak eskatzen zituenean begien bistara uzten zuen ipurdi eder hura aurrean zuela, pixka bat berotzen ari zela konturatu zen, eta mutilari ea etxean egingo ote zuten galdetu zion, horrela, lasai asko, eta mutilak «etxean ez, he- mentxe bertan», erantzun zion, eta inongo lotsarik gabe hantxe bertan egin zuten (fantasiatzeko tabernak jendez erraz husten dira), eta gero Anita lokartzen hasi zen eta handik gutxira lo seko zegoen.

Goizeko zortzietan esnatu zen. Eta arraroa eta guztiz ez ohikoa ematen duen arren, esnatu orduko galdutako fantasia gogora etorri zitzaion, guztiz aberatsa izateare- na alegia, eta hasiera batean mokadu batzuk baino ez zizkion hartu, baina gero, guztiz harrapa- tua, milioiak banatzen egon zen eguerdi arte. Lanera ez zen joan, baina, hori bai, ekintza on asko egin zituen. ●

Sancenaren betiko burdina

Duela lau urte Sancena enpresak 150 urte bete zituen, baina ez zuten aparteko ospakizunik egin. *Orrialde Horietan* iragarki ttikia dute. Eta inoiz ez dute aparteko publizitaterik egin. Ez dute behar. Jakin behar dutenek badakite Sancenak egiten dituela Nafarroako hiri eta herrietako burdinezko kale-altzari gehienak.

EZTARRIA UREZ FRESKATZEKO ERABILTZEN dugun lehoi berdearen iturria Sancenak egin du. Haurrak parkean jolasean diren bitartean, Sancenak eginiko eserlekuetan jartzen dugu ipurdia. Sancenak ekoiztiko farolek argitzen dute gure gaua. Eta Sancenarenak dira, nola ez, eguneroko joan-etorrian ehunka aldiz zapaltzen ditugun estolda estalkiak. Betiko enpresa honek betiko kaleko altzariak egiten ditu.

Arrotxapeko Joakin Beunza kalean dute lantegia. Baina lehenago, gezurra badirudi ere, Jarautaren eta Kale Nagusiaren artean dagoen barneko patioan zuten. Eta oraindik lehenago, San Pedroko erroten. «Hemen-dik urtebete eta erdira, Agustinos industrialera joanen gara», adierazi du Miguel Nagorek, enpresako egungo burua. Miguel Nagore Sanzena, familia enpresa honetako laugarren belaunaldiko kidea.

XIX. mendeko enpresa

Salvador Pinaquy izeneko frantziar batek sortu zuen enpresa, 1848an, nekazaritza makinak eta lanabesak egiteko. Laster, iruindar batekin bazkide zuen, Miguel Nagoreren birraitonarekin, hain zuzen ere. Pinaquy enpresaburu ekinzailea zen, eta be-

rak eraman zuen Iruñera Argatik harturiko ura. Eta, noski, enpresa iturgintzan sartu eta estolda estalkiak egiten hasi zen. Pinaquy enpresa utzi zuen, eta sanzenatarrek segitu zioten frantziarrak hasitako bideari. 1890ean, kale altzariak egiten hasi ziren.

Sancenaren burdin zatien artean istorio bitxi asko egonen dira, gehienak galduak, ordea, 1.535 °C-tan urtuak. Adibidez, lehoi berdearen iturriaren diseinua nondik atera zen ez dakite; ehun urte pasatxo ditu diseinuak, eta Ingalaterrakoa omen da, lehenbiziko iturrietan ingelesezko hitzak agertzen baitziren. Hori bai, Julian Gaiarre tenorea Sancen lanean ibili zela badakite, hark erabili omen zuen ingudea gordetzen baitute.

Familiako enpresa izaten segitzen du Sancenak. Baina denboraren aldatetara hagitzen ongi moldatzen dela erakutsi du. «Familia enpresek hirugarren belaunladiako porrot egiten dutela diote estatistikek», adierazi du Miguel Nagorek. «Baina guk segitzen dugu, eta enpresa ongi doa».



Miguel Nagore
Sena

'Sena Etxea
fundo burua'

«Estalkiak nahi
bezala dugu. Nahi
izanez, euskaraz
jartzen ditugu hitzak;
hori du egin
multinazional batek»

Estoldetako estalkien negozioaren bilakaera

Alfonso Perez de Ziriza Sancenako aholkularia da, baina ez bertako langilea. Berak esplikatu du negozioaren bilakaera: «Lehen, oso estalki guti paratzen ziren kaleetan. Hasieran, hau eremu jakinetako negozioa zen; Sancenak Nafarroan eta Gipuzkoan lan egiten zuen. Baina garaia modernizatu ahala, gero eta estalki gehiago paratzen joan ziren. Eta egun, gauza askotarako jartzen dira estalkiak. Eta ugaritze horrek estandarizazioa ekarri du; eta estandarizazioak, multinazionalak negozioan sartzea. Eta Sancenak ttikia da. Beraz, pertsonalizazioa jo du».

Negozio honetan berebiziko garrantzia du urtu behar diren piezen kopuruak. Seriea ttikia bada, lan gehiena eskuz egiten da. Aitzitik, seriea oso handia bada, batez ere makinek egiten dute lan. Sancenak —egun 17 langile dituen enpresak— serie ttikitako

ekoizpena jo du. «Estalkietan bezeroak nahi duena jartzen dugu», dio Miguel Nagorek. «Estalkia berak nahi bezala egiten dugu, nahi dituen elementuekin. Nahi izanez gero, euskaraz jartzen ahal ditugu hitzak; hori ezin du egin multinazional batek».

Kale altzariak eta partikularrentzako lanak

Baina ez ditu egiten estoldetako estalkiak bakarrik. Iruñean aurki daitezkeen burdinazko kale altzari gehientsuenak Sancenak egin ditu. Bezeroak edozein ideia eman, eta berak burdinarekin gauzatzen du. «Duela hamar bat urte, Iruñeko kale-altzari guztiak Sancenarenak ziren», erran du Miguel Nagorek. «Orain ez, altzari estandarrek jartzen dira, plastikoa erabiltzen da... Baina burdina erabiltzen segitzen da. Oraindik ere merkatua badago, eta multinazionalak merkatua kentzen badigute, guk berreskuratzen ahal dugu produktuen pertsonalizazioa joz. Orain, asko ari gara

ASIER AZPILIKUETA



Pinaquyren ondorengoak

Salvador Pinaquy frantziarrak 1948an sortu zuen, Iruñean, Casa Pinaquy izeneko burdina galdategia. Laster, Sanzena iruindarrarekin bazkide zuen, eta frantziarrak enpresa utzi zuenean, Casa Sancena —Suceor de Pinaquy izena hartu zuen. Iruñeko karrika zaharretan, oraindik ere, Pinaquy izena duten estolda estalkiak ikusten ahal dira —Dormitaleria karrikakoa, esaterako—.

egiten balkoietakako barandak. Artistei ere egiten dizkiegu piezak. Eta tabernen izenak paratzeko plakak. Produkzio industrialek aldenduz, gure produkzioa pertsonalagoa da, hurbilagoa, familiaragoa, betikoak».


154 urteko bidea eginagatik ere, bide luzea dute oraindik Sancenak. Eraikitzaileen artean ezaguna da euren lana; eta segituko dute lehoi berdearen iturriak egiten, eta estoldetako estalkiak egiten. Baina jendeak ez du Sancena ezagutzen, nahiz eta eguneroko zapaltzen dituen bere produktuak.

Erran bezala, hementik gutira industriale batera joanen da Sancena, hiribarnetik kanpora. «Txatarra garraiatzen duten kamioiendako hobe izanen da industrialean egotea, ez, ordea, bezero partikularrendako», dio Miguel Nagorek. Hor dute erronka. Sancenak, Nafarroako enpresa zaharrene-takoak —zaharrena ez bada—, horretarako nahiko eskarmentu badu. Eta burdina ez zaie faltako.

→ Asier Azpilikueta


Ekoizbidea

1 Moldea egin. Burdinazko pieza bat egiteko, lehenbizi horren moldea egin behar da. Bi modutan egiten dute Sancenak. Pieza bitxi samarren kasuan, egurrezko eredua hondar eta erretxin nahasketa batekin estaltzen dute, prentsa batez; egurrez kendutakoan, moldea lortzen da (negatiboa). Pieza arruntagoen kasuan, metalezko eredua erabiltzen dute. Bi kasuetan, moldeak maskor itxura du, bi maskor molde bakoitzeko.



2 Burdina urtu. Burdina (Fe) 1.535 °C-tan urtzen dute. Burdinak, berez, propietate mekaniko apalak ditu, eta beste elementu batzuekin nahastu gabe gutitan erabiltzen da. Sancenak, txatarra, lingoteak eta ikatza nahasiz lortzen dute burdinurtua. Burdinurtua galdaketa-labetik gori-gori atera eta ontzi batera botatzen dute.

3 Moldea bete. Egin behar diren piezen moldeak, zinta garraiatzaile baten gainean, burdinurtuz beteriko ontziaren azpitik pasatzen dira. Langileek ontzia irauli, eta, tentu handiz, bi maskoretako moldeek duten zulotxo batetik sartzen dute burdinurtua.



4 Produktua atera. Piezen galdaketan, burdinurtua hozten delarik, moldearen forma hartzen du. Pieza moldetik atera eta duen harea kentzen zaio. Batzuetan, piezari akaberako mekanizazioa aplikatu behar zaio. Errate baterako, eserlekuak muntatu behar dira: burdinazko bi piezei egurrezko xafak jarri, eta xafak margotu. Iruñeko karriketan, Sancenak berak paratzen ditu eserlekuak.

ARGAZKIAK: LANDER F. ARROIABE / ARGAZKI PRESS

5 Lixatu. Moldeetatik aterako piezak, inguruko harea kentzeaz gainera, lixatu ere egin behar dira. Pieza batzuk lixagailu mekaniko handi batean sartzen dituzte, altzairuzko bola ttikitxo batzuek lixa ditzaten. Beste pieza batzuk lixatzeko, ordea, eskuko lixagailu bat erabiltzen du langile batek.




6 Produktua kalean. Sancenak kaleko altzariak egiten ditu: estoldetako estalkiak —ehunka eredu eta tamainatakoak—, lehoi berdearen iturriak, Iruñeko lehoi-dun barandak, balkoietakako barandak, trafikoko oztopatzeko gontzak, eserlekuak, paperontziak, kale-argiak... Baina baita partikularrek eskatutako piezak ere: pertsona baten bi eskuak, zapata pare zahar bat —artista batek eskatua—, arropa denda baterako pertxeroa, mesanotxeak...

Diputazioari esker

Teologia. Santo Tomasen Jaungoikoaren existentzia frogatzeko bideak kolpe bakarrean birrintzen dituen esaldia botatzen du Gerardo mus bikotekide ikurrina baino baskoagoak arratsaldero, Monte Carlon, mus partida abian jarri eta lehen lau kartak jaso bezain pronto: «Kaben Jangoikoa, baldin eta existitzen bada, eta ez dut uste existitzen denik, existituko balitz ez bailitzateke niri horrelako kartak bidaltzeko bezain kabroia izanen». Gerardoren ateraldiak azken boladan aurkari izaten dugun Unzuko kirol saileko saltzaile erregionalista pareari ez dio grazia handirik egiten. Nolanahi ere, haien erreferentzia ideologiko nagusia **Santiago Cervera** izanda, ezin dute haserretuz saildujale irudia ematen aritu. Hartara, beraz, entzungorrena egiten dute. Dena dela, ipurdiak salatzen ditu: bizpahiru minutu igarotzen dituzte ipurdi masailak aulkiaren gainean dantzatzan, jarrera aldaketa etengabea, ihes egin dien erosotasunaren bila. Lehen hamarrekua guretzat izaten ohi da.

Psikologia. Astelehenean, baina, Gerardok ez zuen bere eguneroko tesi teologiko birrintzailea oka egin. Aitzitik, partida hasi aurretik, mirarizko ekintza gauzatu zuen, historian lehen-dabizikoz nahi genuena edateko gonbita eginez bai **Pipa Gancedoren**



Agatha Christiek idatzi Murder on the Orient Express filmaren afixa.



Santiago Cervera, Osasun kontseilaria.

elastiko saltzaileei, baita niri ere — Arguedasko semea izanagatik ere, Uztarriaren Ama Birjinarena baino Ukabilarenaren jarraitzaile sutsuagoa da Gerardo. To erderakada—. Aleluya. Samuel zerbitzariak haien gin-tonikak —orain dela gutxi arte patxarana edaten zuten, baina aurreko batean Osasun kontseilaria La Olla tabernan gina hartzen ikusi zutenetik, besterik ez dute ezta-

rriratzek — eta gure kubatak mahai-gaineratu zituelarik, Gerardok topa egin zuen: «Gora Diputazioa askatuta! Gora Diputazioa erregionalista!».

Soziologia. Guztiok aho bete hortz utzi gintuen. **Agatha Christie**-ren idazkietan oinarritu pelikularik txarreneko **Hercules Poirot** bailitzan, Gerardok, azalpenak eman

aurretik, urrupada luzea ebatsi zion kubatari, eta dozena bat segundoz begira geratu zitzaigun. Azkenean, aurpegia alderik alde zeharkatzen zion irribarreaz, azaldu zuen egunkarian irakurria zuela Diputazioaren inkesta batek zioela Nafarroako gazteen %8 besterik ez direla espainiar sentitzen. «Nork eta Diputazioak egindako inkesta batek: gora Migueliko!», gaineratu zuen, Migueliko horrelaxe, euskara jatorrean, u eta guzti ahoskatuz.

Orgia. Irakurlerik fidelenek aski ongi dakitenez, 50 urteak gero eta gertuago ditudan honetan, bizitzaren erdiaren krisiak jota nagoela, garai batean sutzen ninduten aber-tzaletasunek egun ez naute epeldu ere egiten. Hartara, Gerardoren gordinkeria bazterrean utzita, giza legearen bidetik, aurkarietako lagunkorago azaldu nintzen, eta **Rafael Gurrearen** osasun egoe-raz galdetu nien. Izan ere, gobernu erregionalistako lehendakariordearen osasuna zigortuegi dago boteprontoan Cordovillako egunkarian Diputazioaren arabera gazteen %8 besterik ez direla espainiar sentitzen irakurtzeko. Espero ez bezala, nire galdera zintzoak ez zituen lasaitu. Espero bezala, partida irabazi genuen. Muturreko erregionalistek muturtuta alde egin zutelarik, beste kubata bat eskatu genuen.



panpilonia zirkus

Katedraleko koska

Soriatik kanporatu eta urkamendia agindu zioten. Rodriguez Ventura arkitektoa, orduan, Iruñera etorri, bere asmoen berri eman, agintariek ontzat jo eta, ondorioz, hiriak katedraleko atari alde eder eta preziatua galdu zuen, Erdi Aroan eraikia. Sorriako Burgo de Osma herriak, ordea, harro agertzen du katedraleko aurreko alde ikusgarria, Erdi Arokoa, XVIII. mendean katedralaren aldeko koordinadora eratu baitzen, arkitekto moderno haren asmoak errekaratzen zituen. Ikusten denez, koordinadora kontu hori ez da hemengo asmazioa. Dena dela, fatxada neoklasikoan gauza bat, gutxienez, ongi egin zuen Rodriguez Venturak, hots, erlojua toki ezinago proposatu zuen leku frankotatik ikusteko. Horrela, farolaren bat gorabehera,

ikusgai dago Txapitela eta Mercaderes arteko kantoitik, Estafetako bihurgunetik eta Nabarreriko iturritik ere bai. Barneko aldea, ordea, zinez ederra da, baina itaxurez josia dago. Kostatu egiten da, halere, zabalik aurkitzea. Bada, katedralaren sartu eta eskuin aldetik joz gero, bigarren kaperako erretaula barrokoak koska txikia du, gris baten porrak duela ia 30 urte eraginik. Kolpe hark, hark gutxienez, huts egin zuen, noski. Grisen bertze makilazoez ordea, Landabengo langileen bizkarrak ubeldu zituzten, jende hura guztia katedraletik kanporatzerakoan. De la fiesta de Blas entzuten zen Radio Requeten garai hartan, Formula V pop taldearen kanturik sonatuenetakoa, alegia. Eta Blasen festatik jende guztia edanda ateratzen zen: Con unas cuantas copas de más,



Iruñeko katedraleko fatxada neoklasikoa.


Enrike Diez de Ultzurrun
jei zehazki. Itxialdiko langileak kanpora bota eta biharamunean, indarra hartu zuen Formula Vren kantuen bertsio berriak: De la catedral (bis) todo el mundo sale con unas cuantas hostias de más, jei. Katedrala herri koplari agertu bazen, katedralako buruak ere bazuen merezimendu horretarako, artzapezpikuak, jakina. Eta, iruindarrak, hartaz gogait eginik, Stop taldearen abesti famatuaz baliatu ziren artzapezpiku jauna urte haietako alkate eta gobernadorearen pare jartzeko. Horrela, Tres cosas hay en la vida — osasuna, dirua eta maitasuna —. Eta hirurak dituenak que le de gracias a Dios zioen kantua honela eman zuten peñek eguzki aldean. Tres cosas hay en Pamplona, que no las quiere ni Dios, el alcalde, el arzobispo y el señor gobernador. Sanferminetako kanturik arrakastatsuenak izan zen, Franco artean bizirik zegoela. Arrotxapea Berriko Angelek dio badela berriz kantatzeko garaia, generoari buruzko aldaketa aintzat hartuta.

Pedro Otadui

◉ SAN FRANTZISKO ESKOLAKO GURASOEN ELKARTEKO KIDEA

soslaia

2000. urteko otsailean, honako proiektua aurkeztu zuen Nafarroako Gobernuak: San Frantzisko Eskolako haurrak teresatarren eraikinera eramane zituzten, Nafarroako Liburutegi Nagusiaren egoitza berria egiteko. Aurka agertu ziren gurasoak. Pedro Otadui azaldu digu zergatik.



«Arrazoiak ematen digu indarra»

PEDRO OTADUIK ARGI DU arrazoiak gurasoen alde dela, baina Nafarroako Gobernuak aurkari boteretsua dela ere bai. Nafarroako Eskola Kontseiluak teresatarren aldeko iritzia agertu berri du, erakunde horren baitan sortu batzordeak egindako txostenak, eraikin hori eze-gokitzat jo arren. Horretaz mintzatu gara Otaduirekin.

■ **Nafarroako Eskola Kontseiluak teresatarren ikastetxearen aldeko iritzia agertu berri du.**

Bai. Erakunde hori osatzen duten kideen gehiengoa Administrazioaren ingurukoa dela kontuan hartuta, espero zitekeen erabaki hori hartzea. Garrantzitsuen, nire ustez, erakunde horren baitan osatu azpibatzen egindako txostena da, argi adierazten baitu teresatarren ikastetxea ez dela egokia.

■ **Eskola Kontseiluak osatu zuen azpibatzen hori txostena egin zezan, baina ez du kontuan hartu.**

Bai, gaiaren inguruan informazioa bil zezan osatu zuen. Bost kidek osatu dute talde hori, eta bere txostenean, haurrak San Frantziskotik ateratzearen aurkako iritzia agertu du, teresatarren egoitza ez delako egokia. Erabakia ez da aho batekoa izan, hiru kidek bozkatu dute San Frantziskoren alde eta bik aurka. Lan zabala egin dute, alde guztietako informazioa jaso baitute taldekideek. Argi dago, lan hori iritzi teknikoak izan dela, eta Nafarroako Eskola Kontseiluarena erabaki politikoa dela. Aukera bazen arazo hau konpontzeko, baina ez dute baliatu. Guk aurrera segituko dugu, orain arte bezala.

■ **Eskola Kontseiluaren**

iritziak Nafarroako Gobernuari hats emanen diola uste duzu?

Hala izan daiteke, baina guk argi dugu teresatarren aukera ez dela egokia, eta txosten guztiek hori erakusten dutela. Kontuan izan beharko luke Nafarroako Gobernuak gizartearen konturatu dela, eraikin horrek ez duela betetzen gutxiengoa ere. Nafarroako Gobernuak aurrera jarraitzen du, eta argi dago bere asmoa zein den, bai eta bere kezka zein ez den ere, eta bere kezka ez da hezkuntza publikoa Iruñeko parte zaharrean gartztea. Nafarroako Gobernuaren kezka da El Corte Ingles non jarri, non jarri Nafarroako Liburutegi Nagusia, eta asmo horiek

betetzeko oztopo bat besterik ez dira gura seme-alabak. Gobernuak legeak dioenari muzin egin dio, eraikinak ez baititu gutxiengo baldintzak betetzen.

■ **Daviden eta Goliaten arteko borrokaren gisakoa da hau?**

Batzuetan horrela dela uste

«Argi dago, Nafarroako Eskola Kontseiluaren teresatarren aldeko iritzia erabaki politikoa dela; arazo hau konpontzeko aukera bazegoen, baina ez dute baliatu»

dugu, Nafarroako Gobernuak baita aurrean dugun aurkaria, eta denok dakigu UPNk nola jotzen duen. Hala ere, ez dut uste hain txiki garenik, gizarte osoa baitago gure alde. Irakas-kuntzan diren sindikatu guztiak, adibidez, gure alde agertu dira, eta gehienek sinatu dute agiri publiko bat ildo horretan. Arrazoiak ematen digu indarra.

■ **Zein izanen dira hurrengo urratsak? Eta zer gertatuko da hurrengo ikasturtean?**

Hurrengo ikasturtean, betiko egoitzan jarraituko dugu. Bitartean, agian, teresatarren eraikina berritzeko lanak hasiko dituzte. Lan baimena joan den urrian eman zuen Iruñeko Uda-

Iruñean hamazazpi urte darama Pedro Otadui, baina Donostian jaioa da. Nafarroako hiriburura iritsi aurretik, Gasteizen eta Madrilén ere izan da lanean. Orain, Iruñeko Iturruma institutuan da matematika irakasle.

San Frantzisko Eskolako Gurasoen Elkarte kide ere bada Otadui. Talde horren baitan, hainbat batzorde daude, eta bera ikasleak Teresatarren ikastetxera eramane nahi dituen proiektuari aurre egiteko sortutakoan ari da lanean.

San Frantziskoko Guraso Elkarte kideak astean behin biltzen dira. «Oso talde dinamikoa da», azpimarratu du Pedro Otadui. Argi dute ikastetxe horretan jarraitu nahi dutela, eta hori lortzeko, borrokatzeko prest dira.

◉ LANDER F. ARROIAE / ARGAKI PRESS

lak sei hilabeteko epean hasteko, eta epe hori ez da bete. Beraz, lanak hasten badira, guk salatuko ditugu. Bestalde, hainbat errekurso jarri ditugu eta denak ezetsi dituzte, Nafarroako Gobernuak erantzun dituelako. Ondorioz, epaileengana jo dugu, eta ikusiko dugu bide horrek zer ematen duen.

■ **Ez da beste konponbiderik izanen?**

Guk agerian utzi ditugu proiektu honek dituen gabezia nagusiak: segurtasun neurriak ez direla betetzen, gelak eskasak direla, ez dagoela kirol pistarik. Gertatzen dena da gabezia horiek guztiak ezin direla konpondu, ez baitago aukerarik. Bi eraikinen artean kokatuta dago Teresatarren ikastetxea, eta toki falta horrek ez du biderik ematen eraikina legeak eskatzen duenera egokitzeko. Planoak eskuan hartuta, argi ikusten da ez dela eraikin hori konpontzerik. Auzoak dituen beharrei ezin die erantzun eraikin horrek.

■ **Orduan, zergatik tematzen da hainbeste Nafarroako Gobernu proiektu horrekin?**

Nafarroako Gobernuak behar duela intendentziako orubea El Corte Ingles han eraikitzeko. Miguel Sanzek berak esan du enpresa horrek hemen egon nahi duela. Hor aurreikusita zegoen, hasieran, Nafarroako Liburutegi Nagusiaren egoitza jartzea. Aukera hori baztertuta, liburutegia San Frantziskora ekartzea erabaki, eta ikastetxea teresatarren eraikinera eramane nahi izan dute. Baina hori ez da konponbidea. Eskolak auzoan egon behar du, eta San Frantzisko da aukerarik egokiena.

— Edurne Elizondo

OSASUNAK MEREZ: DU!! BOZKA LOTINA!

Baina ez da
Aurkeztu!!



Aibalaostid!
eta
hori??

Nafar Kronika

Martxelo Sotes

Iholandaren mendekua

Hementxe dira sanferminak. Hala salatzen dute hainbat elementuk. Prestaketa ororen artean Tonbolaren muntaketa izaten da festen gertutasuna gogorarazten digun lehena. Eta horrekin batera, sanferminetako kartel hautatu berria. Portzietto, aurtengoa ere eza-gun egiten zait. Beraz, bietako bat: edo azken hamar urteotako kartelek antza dute edo urtero kartel bera hartu, zenbakitxoak aldatu eta berria balitz bezala aurkezten digute.

Agian oharu ere ez gara egiten, baina bada jai aurreko beste ezaugarri bat. Eta hauxe da guztiongan eragin handiena duena: alkatearen ezin-gona. Eta, noski, aurtun ere hasi da Iholandaren umorearen jaialdia. Txosnak fuera. Baina lasai gaitezen, gauza denek, akaso justifikaziorik ez, baina ulertzen laguntzen diguten arrazoiak dituzte. Arrazonamenduaren abiapuntua:

- Lehenengo eta behin inkestak garrantzitsuak dira. Betiere garrantzi erlatiboa. Hau da, noiz dira inkestak emaitzak fidagarriak? Erraza. Inkesta enkargatu duenaren interesekin bat egiten dutenean.

- Beraz, Nafarroako Gobernuak duela gutxi egindako inkestak ez du garrantzirik: noski, Nafarroako gazteen %51 autodeterminazioaren alde azaldu direlako.

- Baina inkestak bete-betean asmatu badu? UPN-n badakite arrisku hori ere badela. Ordainean, beraz, «atera ditzagun gorri-separatista-tximaluze hauek jaigunetik hala edo nola».

- Ergo... txosnak fuera.

Onartu beharko dugu. Benetan abila dira Vianako Printzearen plazako saikobakoak. Eta, arrazonamendu kartesiar berari helduz, iradokizun apala egiten ausartuko naiz: Erraldioen konpartsa ere vascoegia da. Horrenbeste txistu eta dultzaina... ez dakit ba nik. Kili-kiek trikornioa daramate eta haurrak xaxatzen eta jipoitzen ematen dute eguna. Ken ditzagun. Gazteek guardia zibilekin erlazioatuko dituzte eta ez zaigu interesatzen. Haien orde Navarrikoak (barraskiloak ez, kilikiak) jar ditzatela, hori bai, umeak jo beharrean, bana ditzatela Caja Navarra-ko gozokiak, esaterako. Eta, badaezpada, erraldioen konpartsaren ibilbidea eta ordutegia aldatu: Landabenera eta gaueko ordu batetik aitzina. Gora San Bartzin!

MUSIKA

- **Zangoza:** Nice Noise taldea gaur Blues tabernan, 23:00etan, eta Mr. Flyn taldea Espejo tabernan, 00:00etan.
- **Iruñea:** Anorexia taldea bihar, 20:00etan, Krawill tabernan.
- **Otsagabia:** Limerick taldea bihar, 20:30ean, erabilera anitzeko aretoan.
- **Tutera:** Celtas Cortos, Fragile eta Mister No taldeak bihar, 22:00etan, Elola kiroldegian.
- **Lekunberri:** Su Ta Gar eta Berri Txarrak taldeak bihar, 22:30ean, frontoian.
- **Etzarri-Aranatz:** Doctor Deslai taldea igandean, 19:00etan, plazan.

KIROLA

- **Lekaroz:** Baztango IX. Mendi Ibilaldia egingen dute igandean: 38 km. Lekaroztik Lekarozera. Ibilaldian parte hartzeko 5 euro ordaindu behar dira. Irteerak izena ematearen hurrenkeraren arabera egingen dira. Lehen taldea goizeko zazpian aterako da. Izena emateko deitu 948-581279 telefonora.

ANTZERKIA

- **Bera:** Doike taldeak *Inperfektua izan nahi dut* antzelana eskainiko du gaur, 20:00etan, kultur etxean.
- **Leitza:** Hainbat leitzar, etxarriar eta irurtzundarrek *Sex-une* lana antzeztuko dute gaur, 20:00etan, zinematokian.
- **Iruñea:** Gorringo taldeak *Trufaldino eta Pantxineta* antzezlana taularatuko dute asteazkenean, 12:00etan, Mikael aretoan.

HITZALDIAK

- **Bera:** Txotxongiloen erakusketaren baitan, Corrado Masacik bisita gidatua eskainiko du

gaur 18:00etan. Ibilbidean txotxongiloen historia, ohiturak eta gaur egungo txotxongiloak aurkeztuko ditu.

- **Leitza:** Mikel Bezunarteak *Kuba bizikletaz* diapositiba emanaldia eskainiko du gaur, 20:00etan, zinematokian.
- **Iruñea:** Fernando Mendiola XIX. mendeko Iruñeko bizimodua hizpide izanen du ostegunean, 18:00etan, Arturo Campion euskaltegian.

ERAKUSKETAK

- **Irurtzun:** Mikel Okiñenak zuzentzen duen Aralart arte tailerraren ikasleen lanak kultur etxean ikusteko azken eguna gaur izanen da, 18:30etik 20:30era.
- **Burlata:** Petrolio enpresen lanak Amazoniako bizilagunen osasunean duen eraginaren inguruko erakusketa kultur aretoan izanen da gaur eta bihar 17:00etatik 19:00etara eta igandean 12:00etatik 14:00etara.
- **Iruñea:** Ana Ibañezen margolanak ikus daitezke Molmar galerian (Curia, 18) hila bukatu arte; jaiegunetan 11:30etik 13:30era eta 18:30etik 20:30era.
- **Iruñea:** Concha Zilbetiren eskultura eta zeramika lanak Pintzel galerian dira hila akitu arte, lanegunetan 10:00etatik 13:30era eta 16:30etik 20:00etara.

BESTAK

- **Irurtzun:** Trinitateko jaiak ospatuko dituzte igandean. Goizean erromeria egingen dute Ergako Trinitatean, arratsaldean haurrentzako parkea egonen da herrian eta 19:00etan, Modestorekin, dantzaldia egingen dute.

BESTELAKOAK

- **Atarrabia:** Euskalerria Irrati-

ak Larreko saria emanen dio gaur Jose Mari Satrustegiri, Paz de Ziganda ikastolan 21:30etik aurrera egingen duten afarian. Afalostean, dantzaldia Modestorekin. Txartelak eskuratzeko, deitu

lehenbailehen 948-170151 telefonora.

- **Leitza:** Kultur astea bukatzeko, igandean XXII. Eskulan-gintza Erakusketa egingen dute. Egun guziz, taloa salduko dute.

Asteko erakusketa



• EGUNKARIA

Carlos Purroi

Non: Zizur Nagusiko kultur etxean.

Noiz arte: Ekainaren 2a arte.

Ordutegia: Lanegunetan 19:00etatik 21:00etara eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.